

Makinek giza dibertsitatea eta inklusioa aintzat har dezaten eskatu dute

Ikertzaileak ahalegin handia egiten ari dira makinek gizakiak erraz identifikatu eta haiekin komunikazio gero eta eraginkorragoa izan dezaten. Etengabe hobetzen ari dira interfazeak, baina, oraindik, gizakion dibertsitatea aintzat hartu gabe jarraitzen dutela [salatu dute Science aldizkarian Purdue Unibertsitateko \(AEB\) hainbat ikertzailek](#). Ez bakarrik etniari dagokionez; klase sozialari eta gaitasunei dagokienez ere hutsune handiak ikusi dituzte. Teknologia baxterketa sustatzen jarraitzen dela diote.

etengabe akatsak egiten dituzte datuak erregistratu eta interpretatzean. Ez bakarrik pertsonen makinekin aktiboki interakzionatzen dutenean (esaterako, ibilgailu autonomo batekin); gauza bera gerta daiteke interakzioaz kontziente izan bai, baina pasiboak diren erabiltzaileen kasuan ere (diagnostiko medikoak egiteko datuak hartzen dituzten gailuekin gertatzen den modura); edo kontziente izan ez eta, gainera, baimenik gabe teknologiaren erabiltzaile bihurtzen diren kasuetan



Gehienetan, maila sozioekonomiko altuko herritar zuriak baliatzen dituzte ikertzaileek interfazeak garatzeko, eta gero, akatsak egiten dituzte datuak erregistratu eta interpretatzen. Maila sozioekonomiko baxuko herritarrek, gutxiengo etnikoek eta dibertsitate funtzionalak dituzten pertsonen pairatzen dituzte ondorioak. ARG.: Pixabay.

Ikerketak diseinatzean bertan hartu behar da kon-tuan giza dibertsitatea; bestela, ikertzaileen aurreiritzi eta akats berak errepikatzen dituzte interfa-zeek. Horregatik, makinaren eta gizakien harremana ikertzen diharduten taldeek hegemonia kulturalari aurre egiteko gai diren zientzialariak behar dituztela nabarmendu dute. Bestela, makinak ez dira gure ingurune natural, birtual, psikologiko, ekonomiko zein sozialean behar bezala integratuko.

Gehienetan, ordea, maila sozioekonomiko altuko herritar zuriak baliatzen dituzte ikertzaileek interfa-zeak garatzeko prozesuan, eta, ondorioz, gero giza talde asko teknologia horietatik kanpo gera-tzen direla egiaztatu dute. Adibidez, interfazeak

(polizien aurpegiaren azterketa egiteko erabiltzen dituzten teknologiak).

Ondorioak larriak dira: azaleko gaixotasunak identi-fikatzeko interfazeak azal zuriko pertsonenkin entre-natzen direnez, diagnostiko-akats handiak egiten dituzte larruzal ilunetan; aurpegiak ezagutzeko algoritmoek ez dituzte ondo identifikatzen perso-na arrazializatuak; eta abar, eta abar.

Beraz, interfazeak entrenatzeko prozesuetan, behingoz, maila sozioekonomiko baxuko herrita-rrak, gutxiengo etnikoak, migratzaileak eta dibe-rtsitate funtzionalak dituzten pertsonak integra ditzatela eskatu diete ikertzaileei. ●